BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3446

AGINDUA, 2011ko ekainaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Honen bidez onesten dira Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe nagusiei laguntzak emateko arauak eta 2011ko ekitaldian eskabideak aurkezteko deialdia.

Abenduaren 23ko 5/2010 Legearen bidez (abenduaren 30ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 250. zenbakia) onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011. urteko Aurrekontu Orokorreko 4223 programan –unibertsitateko irakaskuntzari buruzkoan– zenbait neurri ezarri dira unibertsitatearen arloko ekimen eta jarduera osagarriei laguntzeko, eta horietako bat da ikastetxe nagusietako diru-laguntzen deialdia.

Hiru dira laguntza horien helburuak:

a) Ikastetxe nagusietako ikasle egoiliar eta atxikitakoak kulturaren eta zientziaren arloetan prestatze aldera, ikastetxe horien jarduerak finantzatzea.

b) Diru-baliabide gutxi dituzten unibertsitate-ikasleak ikastetxe nagusietan egoitza izan dezaten ahalegintzea.

c) Prestakuntza jardueretarako eta unibertsitate-ikastetxe horiek ekipatzeko diren ondasun inbentariagarriak finantzatuz, ikastetxe nagusiei laguntza eskaintzea bizirauteko.

Diru-laguntza programa honen bidez laguntza ematen zaie ikastetxe nagusi horiei, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren bosgarren xedapen gehigarrian agindutako eginkizunak bete ditzaten, hau da, laguntzea unibertsitateko ikasleei egoitzak eskaintzen, ikasle horien kultura- eta zientzia-prestakuntza sustatzen eta euren jarduerak unibertsitateko komunitatearen zerbitzura jartzen.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bategina (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA, 11. zenbakia). Dekretu horretako VI. eta VII. tituluak –III. Kapitulua– EAEko Administrazio Publikoaren laguntza eta diru-laguntzen erregimenari eta arlo horretako arau-hauste eta zehapenen erregimenari buruzkoak dira. Hortaz, titulu horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartu zituen abenduaren 23ko 2/2009 Legean eta aplikazio orokorrekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Gaia.

1.- Deialdi honen xedea da 2011. urtean zehar ikastetxe nagusietan sortzen diren gastuak finantzatzeko laguntzak arautzea eta ematea, 4. artikuluan adierazten diren ekintzak egin ditzaten.

2.- Deialdi hau 11. artikuluan eta hurrengoetan finkatutako banaketa proportzionalaren sistemaren arabera ebatziko da.

2. artikulua.- Deialdi honetarako diru-baliabideak.

1.- Deialdi honetarako jarritako zenbatekoa 103.171 eurokoa da, eta helburu horretarako abenduaren 23ko 5/2010 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorreko 4223 programan –unibertsitateko irakaskuntzari buruzkoan– izendatutako aurrekontu kredituen kargura habilitatu da.

2.- Aurreko paragrafoan adierazten den zenbatekoa handitu ahal izango da, guztira eskatutako laguntzen zenbatekoa kontuan hartuta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste laguntza-programak gauzatu ondoren agortu gabe gerta litezkeen aurrekontuen arabera, eta, betiere, laguntza horiek ebatzi aurretik. Horren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

3. artikulua.- Onuradunak.

1.- Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunak unibertsitate-zentroen titular diren pertsona juridiko publiko zein pribatuak izan daitezke, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Legez aitortuta egotea unibertsitateko ikastetxe nagusi gisa.

b) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

2.- Onuradun juridikoek bete egin beharko dituzte indarreko legeriak diru-laguntza publikoen onuradun izateko eskatzen dituen betekizun orokorrak, egokitasun subjektiboari dagozkionak. Orobat, ez dira ez penalki ez administratiboki zigortuta egongo diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko eta ez dira egongo laguntzak jasotzea eragozten dien inolako lege-debekuren pean –sexuagatiko diskriminazioa egiteari dagozkionak barne–, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki.

4. artikulua.- Laguntzen xedea.

1.- Deialdi honen bidez emandako laguntzen erakunde onuradunek laguntzak zuzendu egin beharko dituzte –artikulu honetan zehazten diren portzentajeetan zuzendu ere– ikastetxe nagusiek egiten dituzten ekintza hauen gastuak finantzatzera:

a) Prestakuntza-jarduerak egitea.- Laguntzaren % 25: egoitzako ikasleak kulturan eta zientzian prestatzen laguntzeko jarduerek –unibertsitateko komunitatean eragina dutenek– sortutako gastuak finantzatzeko, betiere unibertsitateko erkidegoaren onerako badira.

b) Bekak ematea.- Laguntzaren % 50: ikasle-egoitzan bizi diren ikasleetatik baliabide ekonomiko gutxien dituztenei egoitzarako bekak edo laguntzak emateko 2011-2012 ikasturtean.

c) Ondasun inbentariagarriak erostea.- Laguntzaren % 25: diruz lagundutako ekintzetarako edo ikastetxe nagusiko ekipamendurako beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak erosteko.

2.- Emandako diru-laguntzari egozten zaizkion gastu guztiak 2011. urtean sortu behar dira. Artikulu honen 1.b) idatzi-zatian ezarritako zenbatekoaren kontura ematen diren egoitza-bekak 2011-2012 ikasturterako dira, eta 2012ko urtarrilaren 1a baino lehenago jakinarazi beharko zaizkie ikasleei, onuradunei eta ordezkoei.

3.- Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Egoitzako ikasleen egoitza- edo mantenu-gastuak eta bidaietan edo joan-etorrietan egiten dituztenak, salbu egoitza nagusien kirol-topaketak sortutakoak.

b) Zeharkako zergak, baldin eta errekuperatu edo konpentsatu badaitezke, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak.

4.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren logotipoa agertu behar da diruz lagundutako ekintzen publizitate eta propaganda guztian, deialdi honetako 15. artikuluko d) idatzi-zatian ezarritakoari jarraiki.

5. artikulua.- Eskabideak formalizatu eta aurkeztea.

1.- Interesdunek agindu honen eranskinean ageri den eskabide eredu normalizatuan egin behar dute eskaera, eta, agindu honetako 7.1 artikuluan eskatutako agiriekin batera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean aurkeztu beharko da (Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz).

2.- Herritarrari Arreta Eskaintzeko Zerbitzuan ere (Zuzenean, www.zuzenean.euskadi.net) aurkeztu ahal izango da, honako helbide hauetan:

- Araba: Samaniego, 2; 01008 Vitoria-Gasteiz.

- Bizkaia: Kale Nagusia, 85; 48011 Bilbao.

- Gipuzkoa: Andia, 13; 20004 Donostia.

3.- Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 38.4 artikuluan ezarritako prozeduren bati eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan xedatutakoari jarraituz (2008ko maiatzaren 30eko EHAA, 102. zenbakia).

4.- Posta-bulegoen bidez egiten den eskabidea gutunazal irekian aurkeztu beharko da, ziurtatu aurretik eguna jarri eta zigilatu dadin, horrela ezartzen baita posta zerbitzuak arautzen dituen Araudia onartzeari buruzko abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikuluan, hain zuzen ere Posta-Zerbitzu Unibertsala eta Posta-Zerbitzuak Liberalizatzeari buruzko uztailaren 13ko 24/1998 Legean ezarritakoa garatuz (1999ko abenduaren 31ko BOE).

5.- Eskabide formularioak deialdiari buruzko Interneteko helbide honetatik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net inprimatu daitezke.

6. artikulua.- Eskabide espedienteari atxikitako izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

1.- Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko eta 2/2004 Legean ezarritakoaren arabera, eskabide formularioan edo laguntza eskatzeko edo esleitzeko espedientearen parte izan behar duen agirietan jasotako datu pertsonalak Unibertsitate Zuzendaritzako «Laguntzak eta diru-laguntzak» dioen 1 zenbakiko fitxategiari atxikiko zaizkio, zein Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datu pertsonalen fitxategi jakin batzuk arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko urriaren 4ko Aginduz arautu baitzen (2010eko azaroaren 5eko EHAA, 216. zenbakia).

2.- Aurka egin, sartu, zuzendu edo ezabatzeko eskubideak eta indarreko legeek pertsona fisiko interesdunei aitortzen dizkieten gainerakoak, Unibertsitate Sailburuordetzan gauzatu ahal izango dira (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz).

3.- Ikasle bekadunen datu pertsonalak ere fitxategi automatizatu berean sartuko dira. Beraz, horren berri eman beharko zaie, Agindu honen 17.1 artikuluaren c) idatzi-zatian azaltzen diren ondorioetarako.

7. artikulua.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.- Eskabidearekin batera honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Legezko ordezkariaren NANa.

b) Legezko ordezkaritzaren frogagiria.

c) Ikastetxe nagusiaren 2011ko aurrekontua edo, behar denean, 2010-2011 ikasturtekoa.

d) Zergen arloko betebeharrak bete direla egiaztatzen duen frogagiria.

e) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete direla egiaztatzen duen frogagiria.

2.- Ikastetxe nagusiak 2009-2010 ikasturtean egindako prestakuntzako jardueren oroitidazkia. Memoria hori edizio inprimatuan badago, horren ale bat bidaliko da.

3.- Aurreko 1 paragrafoan exijitu diren agiriak, horien jatorrizkoak ez badira aurkezten, behar bezala konpultsatuta egon beharko dute. Baldin eta eskatzen diren agiri horiek dagoeneko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren esku badaude, interesdunek horren berri eman dezakete eskabidean. Halakoetan, eskatzaileak adierazi beharko du zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu zituen, edo, bestela, zein organo edo bulegok eman zizkion, hartara Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 35. artikuluaren f) idatzi-zatian ezarritakoa aplika ahal izan dakien.

8. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

9. artikulua.- Eskabideetan egin diren hutsak zuzentzea.

Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. eta 71. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz, Unibertsitate Zuzendaritzak atzematen badu aurkeztutako eskabidean akats edo hutsen bat dagoela, eskatzaileari eskatuko zaio zuzendu dezala hutsa, edo behar diren agiriak aurkeztu ditzala hamar egun balioduneko epean, aditzera emanez ezen, horrela jokatzen ez badu, jarritako epearen barruan ukatuko egingo zaiola eskabidea, aldez aurretik behin betikotasunez emandako ebazpenez.

10. artikulua.- Organo kudeatzailea.

Deialdi hau kudeatzeko eginkizuna Unibertsitate Zuzendaritzarena da.

11. artikulua.- Laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpide objektiboak.

Irizpide hauen arabera zehaztuko dira laguntzak:

a) Oinarrizko finantzaketa.- Aurreko 2.1 artikuluan jasotako eran, deialdi honetara zuzendutako ehuneko hirurogei deialdian interesa duten ikastetxe nagusien kopuruaren proportzio zuzenean banatuko da, betiere eskatutako betekizunak betetzen badituzte.

b) Egoitzako plazen kopurua. Deialdi honetara zuzendutako zenbatekoaren ehuneko berrogeia proportzio zuzenean banatuko da ikastetxe nagusietan 2010-2011 ikasturtean eskainitako egoitzatokien artean.

12. artikulua.- Diru-laguntzen zenbatekoa.

Diru-laguntza zenbatekoa den jakiteko, agindu honen 11. artikuluan ezartzen diren irizpideak, banaketa proportzionalari buruzkoak, aplikatuko dira.

13. artikulua.- Deialdia ebaztea eta jakinaraztea.

1.- Deialdi hau gehienez ere sei hilabeteren barruan ebatziko da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako epe horren barruan ebazpenik egon ez bada, eskaerak ezetsi egin direla ulertuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horrek ez du esan nahi, Lege horrek administrazioari berariaz ebazteko obligaziorik ezartzen ez dionik.

3.- Unibertsitate Zuzendaritzak proposatuta, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak emango du deialdiko diru-laguntzen gaineko ebazpena.

4.- Eskatzaileei eta, hala behar izanez gero, beste interesdun batzuei banaka jakinaraziko zaie deialdi honen ebazpena.

5.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira emandako diru-laguntzak eta haietan gertatzen diren aldaketak.

14. artikulua.- Diru-laguntzak ordaintzea.

1.- Laguntzak hiru epetan ordainduko dira:

a) Lehenengo ordainketa.- % 40 laguntza onartutakoan ordainduko da, betiere agindu honen 17.a) artikuluan ezarritakoaren arabera onartu eta gero.

b) Bigarren ordainketa.- Laguntza-zenbatekoaren % 50ekoa izango da, eta 2011ko azaroaren 15a baino lehenago igorriko da egoitza-beketarako.

c) Hirugarren ordainketa.- Laguntza-zenbatekoaren % 10 laguntza esleitutako laguntza justifikatu eta gero ordainduko da.

2.- Diru-laguntzaren zenbatekoa abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako berme-araubideari eutsiz bermatuko da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren konturako diru-laguntzen itzulketen eta bermeen araubide orokorra arautu zen, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, araubidea eta obligazioak ezarri ziren.

15. artikulua.- Onuradunen betebeharrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluak orokorki aipatzen dituen obligazioez gain, agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek obligazio hauek bete beharko dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretan, diru-laguntza eman dela jakinarazteko komunikazioa jasotzen denetik harako hamar eguneko epearen barruan, entitate onuradunek idatziz eta berariaz uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartutzat joko da.

b) Diru-laguntza zenbait ekintzen gastuak ordaintzeko emanda bada, bada horretarako ez beste ezertarako erabiltzea, 4. artikuluan finkatutakoari jarraiki.

c) Egoitza-beka edo -laguntzak emateko, publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioak aplikatuko dira.

d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren logotipoa agertzea diruz lagundutako ekintzen publizitate edo propaganda guztian. Inprimatzeko eta ondo ikusteko moduan agertuko da logotipoa, hala agintzen baitu Eusko Jaurlaritzako erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak (1999ko urriaren 26ko EHAA, 205. zenbakia).

e) Diruz lagundutako jardueren xedea edo izaera funtsean aldatzen duten gorabeheren berri ematea, eta deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzei buruzko informazioa ematea Unibertsitate Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, erakunde horiek beren eginkizunak betez eskatzen baldin badiete.

f) 10. artikuluan aditzera ematen den laguntza kudeatuko duen organoari jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik xede bererako lortutako diru-laguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak.

16. artikulua.- Aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeko aukera.

1.- Agindu honetan araututako diru-laguntzekin batera beste erakunde publiko zein pribatu guztiek helburu bererako emandako bestelako diru-laguntza edota unibertsitateko laguntza edo bekak jaso daitezke, baldin eta pilaketak gainfinantzaketarik eragiten ez badu.

2.- Deialdi honetan emandako laguntza eta helburu bererako beste diru-sarrerak bat eginda sortzen den kopurua inolaz ere ezin da izan onuradunak egin beharreko jardueraren edo laguntzaren xedearen kostua baino handiagoa. Hori gertatuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa behar den beste murriztuko da eta onuradunak diru-laguntzaren zenbatekoa aldatzen duen ebazpenean ezartzen den kopurua itzuli beharko du.

17. artikulua.- Diru-laguntzaren xedearen eta jasotako funtsen aplikazioaren justifikazioa.

1.- Diru-laguntza zertarako erabili den justifikatzeko, agiri hauek bidali beharko dira Unibertsitate Zuzendaritzara 2012ko martxoaren 31 baino lehenago:

a) Memoria bat. Bertan deskribatu egingo dira jasotako diru-laguntzaren kontura egindako gastuak eta prestakuntza-ekintzak.

b) Agindu honen 4. artikuluaren a) eta c) idatzi-zatietan aipatzen diren prestakuntza-jardueren edo erositako ondasun inbentariagarrien gastuen faktura originalak edo behar bezala konpultsatutako fotokopiak. Horiekin batera, zerrenda bat ere aurkeztuko da, faktura bakoitzaren xehetasunak bereizita adierazten dituena, deialdi honen organo kudeatzaileak horretarako prestatutako datu-orrien arabera.

c) Ikastetxe nagusiko zuzendariaren aitorpen sinatua. Bertan honako hauek zerrendatuko dira: ikastetxe nagusiaren egoitzako agindu honen 4.1.b) artikuluan ezarritakoa aplikatuta kuotetarako laguntza edo beka jaso duten ikasleen zerrenda, abizenak, izena eta NANa, alfabetikoki ordenatuta. Zerrenda horretan zehaztu egingo da nork zenbat jaso duen. Dena dela, beste erakunde publiko zein pribaturen batek bekarik edo laguntzarik eman badiete ikastetxe nagusiko ikasle bekadunei, erakunde horren izena ere zehaztuko da.

d) Agindu honetan ezarritakoa aplikatuta emandako egoitza-laguntzak emateko oinarriak.

e) Aitorpen sinatua, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik xede bererako lortutako diru-laguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratu izanari buruzkoa.

2.- Agindu honen 6.3 artikuluan azaltzen diren ondorioetarako, aurreko 1.c) idatzi-zatian adierazitako aitorpenarekin batera, ikasleek idatziz emandako baimena jaso beharko da, hain zuzen ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari uzteko agirietan azaltzen diren datu pertsonalak erabiltzen uztekoa.

3.- Era berean, ikastetxe nagusiaren 2011ko edo, behar denean, 2010-2011 ikasturteko aurrekontuen kitapena bidali behar diote Unibertsitate Zuzendaritzari, eskumena duen organoak onetsitakoan. Diru-sarreren atalean deialdi honen kargura emandako diru-laguntzaren zenbatekoa agertu behar da, bereiz.

4.- Fakturen eta ikasle bekadunen zerrendak kalkulu-orriko (Excel) formatuan –kopia elektroniko baten bidez– bidaliko dira.

18. artikulua.- Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko aintzat hartutako baldintzak aldatzeak edo, honekin batera, beste edozein erakunde publiko zein pribatutatik diru-laguntzak eta laguntzak jasotzeak diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, deialdi honetan laguntzen onuradun izateko finkatutako gutxieneko betekizunekin bat etorrita betiere. Ondorio horietarako, Unibertsitate Zuzendaritzak aldatzeko ebazpen bat emango du, eta bertan diru-laguntzen zenbatekoa doituko da.

19. artikulua.- Ez-betetzeak.

Diru-laguntza ematea eragin zuten baldintzetako bat ez dela betetzen egiaztatzen bada, jasotako diru-kopurua eta legezko interesak itzuli beharko ditu ikastetxeak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusira, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak– 53. artikuluan xedatutakoaren arabera eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuari jarraiki.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Agindu honek arautzen dituen laguntzen araubidea ez zaio jakinarazi behar Europar Batasuneko Batzordeari, Batzordearen (EE) abuztuaren 2008ko abuztuaren 6ko 800/2008 Erregelamenduan ezarritakoaren ondorioz (kategorien araberako salbuespenen erregelamendu orokorraren ondorioz, Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, 2008ko abuztuaren 9koa). Erregelamendu horretan, laguntza-kategoria jakin batzuk zehazten dira, eta, besteak beste, prestatzeko laguntzak, merkatu batuarekin bateragarriak, Tratatuaren 87. eta 88. artikuluak aplikatuz.

Bigarrena.- Agindu honetan aurreikusten ez denerako, bereziki honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren laguntza eta diru-laguntzen erregimenari eta laguntza eta diru-laguntza publikoen arloko arau-hausteen eta zigorren erregimenari buruzkoak, hurrenez hurren).

Hirugarrena.- Prozedura gaietan -Agindu honetan arautu gabekoetan hain zuzen ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epearen barruan.

Bigarrena.- Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 14a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

LAGUNTZA-ESKABIDEA
SOLICITUD DE AYUDA

Ikastetxe nagusiei laguntzak emateko deialdia

2011. URTEA

Convocatoria de ayudas para los Colegios Mayores

EJERCICIO 2011

IKASTETXE NAGUSIA *COLEGIO MAYOR*	

ESKABIDEAREN ERREGISTROA
REGISTRO DE LA SOLICITUD

AURKIBIDEA
ÍNDICE

Orr./ *pág*

I.- Ikastetxe nagusiaren identifikazioa
Identificación del Colegio Mayor 2

II.- Erakunde titularra
Entidad titular 2

III.- 2010-2011 ikasturtean eskainitako egoitza-plazak
Plazas de residencia ofertadas en el curso académico 2010-2011 2

IV.- 2010-2011 ikasturterako programaturiko prestakuntza-jarduerak
Actividades formativas programadas, curso académico 2010-2011 3

V.- Zein prestakuntza-jardueratarako eskatzen den laguntza
Actividades formativas para las que se solicita ayuda 10

VI.- Zein ondasun inbentariagarritarako eskatzen den laguntza
Bienes inventariables para los que se solicita ayuda 11

VII.- Beste laguntza edo diru-laguntza batzuk
Otras ayudas o subvenciones 12

VIII.- Beharrezko dokumentazioa
Documentación preceptiva 12

IX.- Adierazpena
Declaración 12

Orriok betetzeko jarraibideak
Instrucciones para la cumplimentación 13

I.- Ikastetxe nagusiaren identifikazioa *Identificación del Colegio Mayor*	
Izena / *Nombre*	
IFZ / *NIF*	
Helbidea / *Dirección*	
Herria / *Localidad*	PK / *C.P.*
Lurraldea / *Territorio H.*	E-maila / *E-mail*
Telefonoa / *Teléfono*	Faxa / *Fax*
Onarpen-egintza / *Acto de reconocimiento*	

II.- Erakunde titularra *Entidad Titular*	
Erakundearen izena / *Denominación de la entidad*	
	IFZ / *NIF*
Helbidea / *Domicilio*	
Harremanetarako pertsona / *Persona de contacto*	
Telefonoa / *Teléfono*	Faxa / *Fax*
E-maila / *E-mail*	
Jakinarazpenerataraako / *Para notificaciones* — Legezko ordezkaria / *Representante legal*	
Abizenak / *Apellidos*	
Izena / *Nombre*	NAN / *DNI*
Helbidea / *Dirección*	
Herria / *Localidad*	PK / *C.P.*
Lurraldea / *Territorio H.*	Telefonoa / *Teléfono*
Faxa / *Fax*	E-maila / *E-mail*

III.- 2010-2011 ikasturtean eskainitako egoitza-plazak *Plazas de residencia ofertadas en el curso académico 2010-2011*		
	G / *H*	E / *M*
Unibertsitate-egoiliarrak / *Residentes universitarios y universitarias*		
Graduatu-ondoko egoiliarrak / *Residentes postgraduados y posgraduadas*		
Irakasleak / *Profesorado*		
Zuzendaritzako pertsonala / *Personal directivo*		
PLAZA-KOPURUA, GUZTIRA / *TOTAL PLAZAS*		
Ikasturteko prezioa plazako / *Precio plaza curso académico*.....		

IV.- 2010-2011 ikasturterako programaturiko prestakuntza-jarduerak
Actividades formativas programadas para el curso académico 2010-2011 (1)

1. JARDUERA / *ACTIVIDAD 1*	
Jardueraren izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna(k) / *Responsable(s)*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

2. JARDUERA / *ACTIVIDAD 2*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

3. JARDUERA / *ACTIVIDAD 3*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

4. JARDUERA / *ACTIVIDAD 4*	
Jardueraren izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

5. JARDUERA / *ACTIVIDAD 5*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

6. JARDUERA / *ACTIVIDAD 6*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

7. JARDUERA / *ACTIVIDAD 7*	
Jardueraren izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

8. JARDUERA / *ACTIVIDAD 8*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

9. JARDUERA / *ACTIVIDAD 9*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

10. JARDUERA / *ACTIVIDAD 10*	
Jardueraren izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

11. JARDUERA / *ACTIVIDAD 11*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

12. JARDUERA / *ACTIVIDAD 12*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

13. JARDUERA / *ACTIVIDAD 13*	
Jardueraren izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

14. JARDUERA / *ACTIVIDAD 14*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

15. JARDUERA / *ACTIVIDAD 15*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

16. JARDUERA / *ACTIVIDAD 16*	
Jardueraren izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

17. JARDUERA / *ACTIVIDAD 17*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

18. JARDUERA / *ACTIVIDAD 18*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

19. JARDUERA / *ACTIVIDAD 19*	
Jardueraren izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

20. JARDUERA / *ACTIVIDAD 20*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

21. JARDUERA / *ACTIVIDAD 21*	
Jardueraren Izena / *Nombre de la Actividad*	
Taldea / *Grupo*	
Arduraduna / *Responsable*	
Erakunde babesleak / *Entidades patrocinadoras*	
Partaide-kopurua / *N.º de Participantes*	
ZENBATETSI DIREN GASTUAK / *GASTOS ESTIMADOS*	
Ordainsariak / *Retribuciones*	
Ondasun inbentariagarriak eskuratzea / *Adquisición bienes inventariables*	
Ondasun suntsikorrak eskuratzea / *Adquisición bienes fungibles*	
Beste gastu batzuk / *Otros gastos*	
GASTUAK GUZTIRA / *TOTAL GASTOS*	

V.- Zein prestakuntza-jardueratarako eskatzen den laguntza *Actividades formativas para las que se solicita ayuda*	
2011. URTEKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK / *ACTIVIDADES FORMATIVAS AÑO 2011.*	
	Zenbatekoa *Importe €*
1.- Tutoretza eta aholkularitza akademikoko jarduerak *Actividades de tutoría y asesoramiento académico.*	
2.- Ikasturtea hasteko eta amaitzeko ekitaldi akademikoak *Actos académicos de apertura y fin de curso*	
3.- Bekak jartzeko ekitaldia *Ceremonia de imposición de Becas*	
4.- Lanbide trebakuntzarako ikastaroak *Cursos de capacitación profesional*	
5.- Ikasgela eta laborategietako jarduerak *Actividades en aulas y laboratorios*	
6.- Kultur zikloak *Ciclos culturales*	
7.- Klubak edo batzordeak *Clubs y Comisiones*	
8.- Hitzaldiak, tertuliak eta kafe-solasaldiak *Conferencias, tertulias y café-coloquio*	
9.- Beste ikastaro batzuk *Otros cursos*	
10.- Kirol-jarduerak *Actividades deportivas*	
11.- Ikastetxe nagusien arteko kirol-topaketa *Encuentro deportivo de los Colegios Mayores*	
12.- Prestakuntza humanistikorako jarduerak *Actividades de formación humanística*	
13.- Jolas-jarduerak *Actividades lúdicas*	
14.- Ikasleentzako kongresuak eta foroak *Congresos y foros para estudiantes*	
15.- Elkarraldiak eta autolandegiak *Convivencias y Campos de Trabajo*	
ESKATUTAKO ZENBATEKO OSOA / *IMPORTE TOTAL SOLICITADO*	

VI.-Zein ondasun inbentariagarritarako eskatzen den laguntza *Bienes inventariables para los que se solicita ayuda*	
2011N EROSTEKO ONDASUN INBENTARIAGARRIAK / *COMPRA BIENES INVENTARIABLES AÑO 2011*	
Izena / *Nombre*	Zenbatekoa *Importe €*
1.-	
2.-	
3.-	
4.-	
5.-	
6.-	
7.-	
8.-	
9.-	
10.-	
11.-	
12.-	
13.-	
14.-	
15.-	
ESKATUTAKO ZENBATEKO OSOA / *IMPORTE TOTAL SOLICITADO*	

VII.- Beste laguntza edo diru-laguntza batzuk
Otras ayudas o subvenciones

Eskatu diozu laguntza edo diru-laguntza beste erakunde publiko edo pribaturen bati?
¿Ha presentado solicitud de ayuda o subvención a otra entidad pública o privada?

☐ BAI / *SÍ*
☐ EZ / *NO*

Erakundea / *Entidad*	Zenbatekoa / *Importe*	Eskaeraren egoera / *Situación de la solicitud*

VIII.- Beharrezko dokumentazioa
Documentación preceptiva

Adieraz ezazu x batekin eskabidearekin batera aurkezten dituzun agiriak.
Señalar con una x la documentación que se incorpora a la solicitud.

☐ Legezko ordezkariaren NAN.
DNI del representante legal.

☐ Legezko ordezkaritza egiaztatzeko agiria.
Documento acreditativo de la representación legal.

☐ Ikastetxe nagusiak 2011. urterako duen aurrekontua edo, bestela, 2010-2011eko ikasturtekoa.
Presupuesto del Colegio Mayor para el año 2011 o, en su caso, curso académico 2010-2011.

☐ 2009-2010 ikasturtean egindako prestakuntza-ekintzei buruzko txostena.
Memoria de las actividades formativas realizadas en el curso académico 2009-2010.

☐ Zerga-betebeharrak bete izana egiaztatzeko ziurtagiria.
Certificado acreditativo del cumplimiento de las obligaciones tributarias.

☐ Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete izana egiaztatzeko ziurtagiria.
Certificado acreditativo del cumplimiento de las obligaciones de Seguridad Social.

IX.- Adierazpena
Declaración

_____ jaunak / andreak adierazten du eskabide honetan agertzen diren datuak egiazkoak direla. Halaber, berariaz onartzen ditu agindu honen baldintzak: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2011ko ekainaren 14ko Agindua, ikastetxe nagusiei laguntzak emateko arauak eta 2011eko ekitaldian eskabideak aurkezteko deialdia onartzen dituena. Era berean, adierazten du laguntzen onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituela berak ordezkatzen duen erakundeak .

Don/Dña.: _____ *declara que son ciertos los datos expuestos en la presente solicitud. Asimismo manifiesta su conformidad con las condiciones establecidas en la Orden de 14 de junio de 2011, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se aprueban las normas reguladoras de las ayudas para los Colegios Mayores y la convocatoria para presentación de solicitudes en el ejercicio 2011, declarando, al mismo tiempo, que la entidad a la que representa reúne todos los requisitos exigidos para resultar beneficiaria de las ayudas.*

Lekua eta eguna _____ *Lugar y fecha* _____

LEGEZKO ORDEZKARIA / *EL O LA REPRESENTANTE LEGAL*

Sinatua: / *Firmado:*

UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUORDE JAUNA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA.
ILMO. SR. VICECONSEJERO DE UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN. DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ORRIOK BETETZEKO JARRABIDEAK / *INSTRUCCIONES PARA LA CUMPLIMENTACIÓN*

IV. atala

(1) Taldea. Programaturiko prestakuntza-jarduera bakoitza zer taldetan sartzen den zehaztu, ondorengo taularen arabera:

Apartado IV

(1) Grupo. Especificar el grupo en que se encuadra cada una de las actividades formativas programadas, según la tabla siguiente:

TALDEA *GRUPO*	BARNE DIRA *SE INCLUYEN*	ZEHAZTASUNAK EDO OHARRAK *DETALLE U OBSERVACIONES*
AKADEMIKOA *ACADÉMICO*	Tutoretza eta aholkularitza akademikoko jarduerak *Actividades de tutoría y asesoramiento académico*	
	Ikasturtea hasteko eta amaitzeko ekitaldi akademikoak *Actos académicos de apertura y fin de curso*	
	Bekak jartzeko ekitaldia *Ceremonia de imposición de Becas*	
	Lanbide-trebakuntzarako ikastaroak *Cursos de capacitación profesional*	Ikaskredituak ateratzeko ikastaroak *Cursos con obtención de créditos académicos*
	Bisitak egitea enpresa edo erakundeei *Visitas a empresas o Instituciones*	
KULTURALA *CULTURAL*	Ikasgela eta laborategietako jarduerak *Actividades en aulas y laboratorios*	Arte ederrak, fotografia, literatura, musika eta beste batzuk *Bellas artes, fotografía, literatura, música y otros.*
	Kultur zikloak *Ciclos culturales*	Zinema, literatura, musika, opera, antzerkia eta beste batzuk *Cine, literatura, música, ópera, teatro y otros*
	Klubak edo batzordeak *Clubs o Comisiones*	Edizioa, prentsa eta aldizkariak eta beste batzuk *Edición, prensa, publicaciones periódicas y otros*
	Hitzaldiak, tertuliak eta kafe-solasaldiak *Conferencias, tertulias y café-coloquio*	
	Beste ikastaro batzuk *Otros cursos*	Prestakuntza-ikastaroak, ikaskrediturik atera gabe *Cursos formativos sin obtención de créditos académicos*
	Kultur bisitak *Visitas culturales*	
KIROLA *DEPORTIVO*	Kirol-jarduerak *Actividades deportivas*	
	Ikastetxe nagusien arteko kirol-topaketa *Encuentro deportivo de los Colegios Mayores*	
GAZTERIA *JUVENTUD*	Prestakuntza humanistikorako jarduerak *Actividades de formación humanística*	
	Jolas-jarduerak *Actividades lúdicas*	Jaialdiak, ikastetxe-jaiak eta jolasak *Festivales, fiestas colegiales y juegos*
	Ikasleentzako kongresuak eta foroak *Congresos y foros para estudiantes*	
	Elkarraldiak eta auzolandegiak *Convivencias y campos de trabajo*	
GIZARTEA *SOCIAL*	Gizarte-laguntza eta –elkarlan jarduerak *Actividades de asistencia y colaboración social*	
	Nazioarteko lankidetzarako proiektuekiko elkarlana *Colaboración con proyectos de cooperación internacional*	